

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL
KONTSEILUA
2021eko URRIAREN 18ko OHIKO BILKURAREN AKTA**

Bertaratuak:

José Antonio Rodríguez jauna. Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea eta Kontseiluko presidentea.

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzeta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Nerea Urien andrea eta Miguel Sánchez jauna, osasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Iker Atxa jauna, kanpo-ekintzaren alorreko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Lucia Torrealdai andrea, hezkuntza-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Josu Iñaki Garay jauna, ogasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Marian Olabarrieta andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte zerbitzuen alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Alex Boto jauna eta Amaia Barredo andrea, ingurumen-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ainhoa Gainberri andrea, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Milagros Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Jesus Ochoa jauna, Martin Iriberrri jauna eta Mónica González andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Víctor Manuel Rodríguez jauna, Carlos Askunze jauna, Igone Revilla andrea, eta Elsa Fuente andrea, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira:

Iker del Río jauna, eLankidetzako taldekoa, gai-zerrendako hirugarren puntua aurkezteko.

Ana Rojo andrea, eLankidetzaren Zerbitzu Juridikoko kidea, gai-zerrendako 2., 3., 5. eta 6. puntuetarako.

Magdalena Eizaguirre andrea, eLankidetzaren Koordinazio Estrategikoaren Zerbitzuko kidea, gai-zerrendako 5., 6., 7. eta 8. puntuetarako.

Bernardo García eta D. Gotzon Baraia-etxaburu, Kualitate Lantaldeko kideak, gai-zerrendako zortzigarren puntua aurkezteko.

Ezin etorria adierazi dutenak:

Jone Miren Fernández andrea, nekazaritza-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatzuz.

Olga García andrea eta Josu Urrutia jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Gorka Urrutia jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Tokia: eLankidetzako egoitza, eta birtuala Zoom bidez.

Eguna eta ordua: 2021eko urriaren 18a, 10.30 h

Bilera 10:45ean hasi da Kontseiluko presidentearen hasierako agurrarekin eta aurkezpen txandarekin, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ordezkari diren Mónica González, Martín Iriberriri eta Jesús Ochoari ongi etorria egin zaie, Kontseiluko kide berriak diren heinean. Presidenteak abisatu du, agenda-arrazoiak tarteko, bilera amaitu baino lehen alde egin beharko duela, eta une horretatik aurrera Kontseiluko presidenteordea izango dela bilkura zuzentzeko arduraduna.

Honako hau da Batzorde Iraunkorrek bilkura honetarako adostutako gai-zerrenda:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea
2. Batzorde Iraunkorreko Koordinakundearen ordezkari-tza aldatzeko proposamena onartzea
3. Programetarako laguntzei buruzko dekretu-proposamenaren gaineko nahitaezko txostena onartzea
4. eLankidetzaren 2020ko memoria aurkeztea
5. Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldearen osaera onartzea
6. Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldearen funtzionamenduko barne-erregelamendua onartzea
7. Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldearen lan-plana onartzea
8. Hezkuntza-eremuko politiken koherentziarako txostena aurkeztea eta horri buruz eztabaidatzea
9. Galde-eskeak

1. **AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA**

Bilkura honetarako deialdiarekin batera, aurreko bilkuraren akta bidali zen. Inork inolako oharrik egin ez duenez, bertaratuek aho batez onartu dute aurreko bilkuraren akta.

2. **BATZORDE IRAUNKORREKO KOORDINAKUNDEAREN ORDEZKARITZA ALDATZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA**

Kontseiluko idazkariak hitza hartu du, eta azaldu duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5.4.d) artikulua ezartzen du Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bi ordezkari dauzka Batzorde Iraunkorrean, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ordezkariari eskatzen die beste ordezkari bat proposatzeko, María Viadero kargugabetu baitute.

Sofía Marroquín Euskadiko GGKEen koordinakundeko presidentek jakinarazi du bi titularrek beren karguetan jarraituko dutela (Iñaki Orube eta Milagros Domínguez), eta ordezkariak Eneko Gerrikabeitia (jarraituko du) eta Mónica González (María Viadero ordezkari) izango direla.

Proposamena aho batez onartu da.

3. PROGRAMETARAKO LAGUNTZEN DEKRETU-PROPOSAMENARI BURUZKO NAHITAEZKO TXOSTENA ONARTZEA

Kontseiluko presidenteak adierazi du ekaineko bilkuran eLankidetzako taldeak programetarako laguntzei buruzko dekretu berriaren proposamena aurkeztu zuela, eta gogora ekarri du, 158/2008 Dekretuko 2.a) artikulua ezartzen duenez, Kontseiluaren funtzioen artean dagoela txostenak ematea, aldez aurretik eta nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren eremuko xedapen orokorren proiektuen inguruan. Gogora ekarri duenez, bilkura horretan onartu zen nahitaezko txostenak egiteko sistema, eta Iñaki Oruberi eman dio hitza txosten-proposamena aurkez dezan, txostena egin duen taldearen izenean.



Informe preceptivo
PGM.pdf

Iñaki Orubek adierazi du lehen aldia dela Batzorde Iraunkorrak nahitaezko txosten bat ematen duena eLankidetzaren —hots, proposamena egiten duen organoaren— parte-hartzerik gabe. Jarraian erantsi du Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta CEAREN eskutik jasotako ekarpenetatik abiatuta egin dela txostena, Emakunderen komunikazioa ere kontuan hartuta. Adierazi duenez, txostenean hiru zati bereizten dira: kontsiderazio orokorrak, kontsiderazio espezifikoak eta azken ondorioa. Ekarpenean aztertu ondoren, Kontseiluak dekretuaren aldeko balorazioa egin dezala proposatzen da, egindako oharrei kalterik egin gabe.

Presidenteak zorionak eman dizkio txostena egin duen taldeari, txosten sendo bat egin duelako.

Beste inork beste komentariarik edo oharrik egin ez duenez, txostena aho batez onartu da.

4. ELANKIDETZAREN 2020ko MEMORIA AURKEZTEA

Presidenteak adierazi du uztailaren 21ean Kontseilu Errektoreak eLankidetzaren jardueren urteko memoria onartu zuela, eta Paul Ortega eLankidetzako zuzendariari eman dio hitza, haren aurkezpen laburra egin dezan.



MEMORIA
2020_cas.pdf



MEMORIA
2020_eus.pdf

Sofía Marroquínek balioan jarri du eLankidetzak, euskal GGKEek eta Hegoko erakundeek aurrekontuko % 95 egikaritzeko egindako ahalegina, oso urte zaila izan dela aintzat hartuta.

5. GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARAKO LANTALDEAREN OSAERA ONARTZEA

Presidenteak gogora ekarri du, martxoaren 9ko osoko bilkuran, garapenerako politiken koherentziarako lantalderako ordezkariak izendatzeko deia egin zela. Ohartarazi duenez, urriaren 11n taldean parte hartzeko interesdunen zerrenda bidali ondoren,

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere parte hartzeko interesa erakutsi du, Ainhoa Gainberri proposatuz.



Listado de
personas pertenecie

Inork ez du inolako oharrik egin, eta horrenbestez, bertaratuek aho batez erabaki dute lantaldearen osaera onartzea.

6. GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARAKO LANTALDEAREN FUNTZIONAMENDUKO BARNE-ERREGELAMENDUA ONARTZEA

Presidenteak gogora ekarri du, 2019ko uztailaren 9ko bilkuran, osoko bilkurak eLankidetzari eskatu ziola garapenerako politiken koherentziarako lantalderako barne-erregelamenduko zirriborro bat egin zezan. Eta jakinarazi du osoko bilkurak zirriborroa onartu behar duela. Kontseiluko idazkariari hitza eman dio, dokumentua aurkez dezan.

Noemí de la Fuentek dokumentuaren aurkezpen laburra egin du, eta urriaren 5ean lantaldeak egindako bilkuran eztabaidatu ziren hobekuntza-proposamenak partekatu ditu. Eztabaidaren ostean, bertaratuek aho batez onartu dute erantsitako barne-erregelamendua.



2021%20REGLAMEN
TO%20INTERNO%20

7. GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARAKO LANTALDEAREN LAN-PLANA ONARTZEA

Presidenteak, lehenago iragarria zuenez, alde egin behar izan du, eta Kontseiluko presidenteordeak aurrera jarraitu du gai-zerrendarekin. Adierazi duenez, urriaren 5ean garapenerako politiken koherentziarako lantaldeak egindako bilkuran lan-plana adostu zen eta bidalitako dokumentazioan erantsi zen. Gaineratu duenez, gai-zerrendaren aurreko puntuan onartutako barne-erregelamenduari dagokionez, Kontseiluaren osoko bilkurak onartu behar du lantaldeak proposatutako lan-plana. Kontseiluko idazkariak lan-proposamena aurkeztu du.



Plan de trabajo
2021 grupo de cohe

Sofía Marroquínek galdetu du [Hezkuntza-eremuko garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko txostenari dagokionez hurrengo urratsak zein izango diren](#). Noemí de la Fuentek erantzun dio hezkuntzako lan-azpitaldearen hurrengo bilera urriaren 27rako aurreikusita dagoela, eta bilera horretan gai hori helduko diotela.

Iñaki Orube kezkatuta azaldu da, [Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparruak](#) bi gairi heltzen dielako bakarrik. Noemí de la Fuentek argitu du dokumentu hori erreferentzia bat dela, baina ez dela

mugatzailea, eta beraz, osoko bilkurak beste gai batzuk lantzeko erabakia har dezakeela.

Bertaratuek lan-plana aho batez onartu dute,

8. HEZKUNTZA-EREMUKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO TXOSTENA AURKEZTEA ETA HORRI BURUZ EZTABAIDATZEA

Sailburuordeak gogora ekarri duenez, 2019ko uztailaren 9an, garapenerako politiken koherentziarako lantaldeak erabaki zuen, balioetan oinarritutako hezkuntzari eta hezkuntza-politikari buruzko 158/2008 Dekretuan aurreikusitako koherentzia-printzipioaren betetze-mailaren gaineko lehen urteko txostena egitea. Kontseiluak eLankidetzari kontratazioaren lizitazioa eskatu zion, eta 2020an gauzatu zen, Kualitate Lantaldea esleipendun atera zelarik. Eta talde horretako kide Bernardo García eta Gotzon Baraia-etxaburu gonbidatu ditu, egindako lana, erabilitako tresna eta lortutako ondorio nagusiak aurkez ditzaten.



INFORME
PRESENTACIÓN COF

Inork ez du ekarpenik edo komentariarik egin. Noemí de la Fuentek gogora ekarri du, urriaren 5eko lantaldearen bilkuran adostu zenez, urriaren 25era arteko epea dutela dokumentuarekiko ekarpenak eta komentarioak bidaltzeko.

9. GALDE-ESKEAK

Paul Ortegak eragileei gogora ekarri die urriaren 31ra arteko epea dutela bigarren eta hirugarren ordainketak gauzatzeko justifikazio-txostenak bidaltzearen, eta aurrekontua ahalik eta neurririk handienez egikaritzearen garrantzia ere gogorarazi die, nahiz eta egikaritzeko zailtasunak oraindik indarrean egon, COVIDak eragindako ezohiko zirkunstantziak direla-eta.

Paul Ortegak lege berria egiteko prozesuari buruzko informazioa eman du. Eta iragarri du laster hasteko agindua onartuko dela, eta horren ostean, legea egiteko egokitasunari eta aukerari buruzko kontsulta publikoko aldi bat irekiko dela. Horrez gain, aditzera eman du lanean ari direla abenduaren 1erako lege-aurreproiektuaren zirriborro bat edukitzeko, eta hortik abiatuta tramitazio formalari hasiera emango zaiola. Elsa Fuentek gogoratu du, araudiak haurren eskubideetan izan dezakeen inpaktuari buruzko txosten bat egiteko betebeharra.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman da 12:25ean.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO**

PRESIDENTEA